

Funtsezko Baliabideak

Geure enpresak dituen funtsezko helburuak eta jarduerak aurrera eramateko, zenbait baliabide behar izango ditugu. 4 baliabide mota desberdintzen ditugu: finantzarioak, fisikoak, intelektualak eta giza-baliabideak.

Finantzarioei dagokionez, gure proiektua abian jartzeko ez dugu inbertsio handirik egin behar, webgune/aplikazio bat delako, hau da, dirurik gastatu gabe abian jarri ahal da, guk informatika eta moda jakinduria nahiko ditugulako hasteko. Izan ere, enpresak aurrera egin ahala langileak kontratatu behar izango ditugu funtsezko jarduerak jasan eta aurrera eraman ahal izateko.

Baliabide fisikoei dagokionez, soilik bulegoko materiala behar izango dugu batez ere, hau da, mahaiak, boligrafoak, etab. Izan ere, baliabide teknologiko asko izan beharko ditugu, geure enpresa teknologian oinarritzen delako. Hori dela eta, ordenagailu, tableta, proiektore, programa informatiko, antibirus eta pantailak behar ditugu, gure aplikazio eta webgunearen helburuak aurrera eramateko eta gure langileak behar dituzten baliabideak eskuragarri izateko.

Giza baliabideak ere izango dira garrantzitsuak gure enpresan, teknologiarekin lotutako guztia ondo funtziona dezan. Horretarako, informatikoak, web diseinadoreak, etab kontratatuko ditugu. Bestalde, modari buruz adituekin ere lan egingo dugu, bezeroei laguntzeko eta modan dauden produktuak erakusteko. Azkenik, eraginkorra den jendearekin (trensetter, youtuber, modeloak...) lan egingo dugu, gure produktua jende gehiagori heldu dezan.